



Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (HLEA)

Zer da HLEA?

HLEA hezkuntzaren arloko hizkuntza-eskakizun bat da. Hezkuntzako HE1 eta HE2 hizkuntza-eskakizunen arteko maila da izatez. (ikus 66/2005 Dekretua, 2005eko apirilaren 14ko EHAAn)

Norentzat da?

Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleei zuzendua dago.

Nork du aitortua HLEA?

Hezkuntzako HE2 (edo baliokideren bat) egiaztatuta dutenek ez dute HLEA lortu behar, berez maila altuagoa egiaztatuz baitute. Bestalde, HBLEM agiria duten guztiek HLEA hizkuntza-eskakizuna aitortua dute.

Noiz dira azterketa-deialdiak?

Urtero deialdi irekia izaten da, irakasle eta hezkuntza-langileentzat. Hezkuntzarako oposizioak deitzen direnean, hizkuntza-eskakizunen azterketa deialdi irekiaren barnean egiten da. Azkenik IRALE programan liberatuta dauden irakasleek eta hezkuntza-langileek deialdi itxian parte har dezakete. Matrikulatzeko epea urtarril aldera izan ohi da.

Nolakoak dira azterketak?

Hiru proba daude, egun desberdinetan:

- **Atariko Proba:** aukera anitzeko galderaz osatua dago. 70 galeretatik 45 asmatu behar dira gutxienez.

- **Proba Idatzia.** Lau ariketa ditu: Ahozkoaren ulermena, Irakurmena, Idazlan laburra eta Idazlan Luzea.

ARIKETAK	PUNTUAK
Ahozkoaren Ulermena	Otik 5era
Irakurmena	Otik 5era



Idazlan Laburra	Oso Gutxi	1
	Gutxi	2
	Nahikoa	4
	Ongi	6
	Oso Ongi	8
Idazlan Luzea	Oso Gutxi	5
	Gutxi	10
	Nahikoa	15
	Ongi	20
	Oso Ongi	25
Gaiztuzko		24 puntu

- **Ahozko Proba:** epaimahaiaren aurrean mintzatu behar da. Bi zati ditu: entzundako audio baten Azalpena eta aztertzaileekiko Elkarrizketa gidatua.

Baliokidetzak

Baliokidetzak Dekretuaren esteka:

http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?e&f=20101115&s=2010219